AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3418

752/2012 EBAZPENA, ekainaren 15ekoa, Osakidetzako zuzendari nagusiarena. Honen bidez, Olatz Olano Arancibia andrea Gipuzkoa Eskualdeko Ekonomia eta Finantzetako zuzendariaren lanpostua betetzeko izendatzen da, eta zerbitzu berezietako egoeran deklaratzen.

Aztertu dugu Gipuzkoa Eskualdeko Ekonomia eta Finantzetako zuzendariaren lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori Zuzendaritza Nagusi honen martxoaren 15eko 221/2012 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen, 2012ko apirilaren 26ko EHAAn (82. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita bere baldintza profesionalak curriculum vitaen jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Kontuan izanik, aurkeztutako dokumentazioa ikusita, Olatz Olano Arancibia andrea deialdiko lanposturako aproposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela.

Kontuan izanik, Olatz Olano Arancibia andrea, Osakidetzako langile finkoa, Gipuzkoa Eskualdeko Administrari Laguntzailea eta Erabiltzailearen Arretarako lanpostu funtzionaleko 2777 hurrenkera-zenbakiko plazaren titularra dena, Gipuzkoa Eskualdeko Ekonomia eta Finantzetako zuzendariaren lanpostua betetzeko izendatu dutela.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, ofizioz deklaratu beharko da Osakidetzako langile finkoak zerbitzu berezietan daudela, erakunde publiko horretako zuzendaritza-karguren bat betetzeko hautatuak badira.

Hori dela eta, Zuzendaritza Nagusi honek hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Olatz Olano Arancibia andrea Gipuzkoa Eskualdeko Ekonomia eta Finantzetako zuzendari izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek interesdunari jakinarazten zaion egunetik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Olatz Olano Arancibia andrea zerbitzu berezietako egoeran deklaratzea, izendatzen duten egunetik aurrera.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko ekainaren 15a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.